

AURKEZPENA

Mila bederatzireun eta larogeita zazpiko urriaren hamaikan hil zen Koldo Mitxelena, Salamancako Indoeuropar Hizkuntzalaritza-ko katedradun lehendabizi, eta Indoeuropar Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologiakoa gero Euskal Herriko Unibertsitatean.

Julio Urkixo Euskal Filologi Mintegiak 1953an Gipuzkoako Diputazioak sortu zuenetik bertatik izan zuen partaide suhar, zuzendari leial eta gidari gaindiezin. Hurbil hurbiletik ikusi ahal izan zuen Koldo Mitxelenak ukitu zituen ikersail orotako ekarpenen handiak nola aldatzen zuen aurkitu egoera hitsa, usu bertan egingdako edota argitaratutako bere (eta haiekin erakarri inoren) lanez Mintegiaren maila goratzen eta izena zabaltzen zituelarik.

Harekiko zorraren erakusgarri, ez kitagarri, Koldoren omenez gure aldizkariaren Gehigarrietarako ikerketa bilduma bat eskaintzea proposatu nionean, berehalako baietza eman zidan Mintegiak; *Sacrum* honetan gauzatu dira (“artaldeko” eta atetiko) hainbat euskalariren era askotako emaitzak, bizioan eta gero ere Euskal Herrian eta haratago izan dituen bestelakoen osagarri.

Eskerrak emateko orduan laguntza anitz dut gogotan. Ezer baino lehen partehartzaileei beraiei, gehienek ulertu dituztelako hone-lako lan batek berezko dituen luzamendu eta atzerapenak; Matilde, Koldoren alargunari, fotografiarako grabatuaren orijinala uztearren; Bernardo Atxagari berariaz egindako ipuiagatik; Imanol Alkortari, hain orijinal ñabar eta zailtasunez beteatarik ekoizpen txukun hau ateratzen jakin duelako; Gipuzkoako Foru Aldundiari, egindako harrera onagatik eta erakutsitako eskuzabaltasunagatik.

Azkenik, baina ez gutxienik, Iñigo Ruiz Arzalluz mintegikide eta argitaratzailekideari, Koldo Mitxelenaren bibliografi gaurko-tuagoa prestatzeaz gainera azken hiru urteotan nirekin lankidetzan eman dituen orduengatik.

JOSEBA A. LAKARRA